

NOLA ERABILI

1. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan lau atal nagusi bereizi ditugu.

AURKEZPENAK

02:56

Lehenengo atal honetan bideo-seriean aktore eta aurkezle gisa parte hartzen dutenek euren buruen aurkezpen laburra egiten dute.

PROPOSAMENA

Bideoko pertsonaiek egindako aurkezpen-ereduari jarraikiz, ikasleei euren buruen aurkezpena idaz dezatela eskatuko diegu. Ondoren, mahaikideek paperak trukatzeko dituzte eta bakoitzak bere kidea aurkeztuko du ozenki, gelako besteek entzuteko moduan. Hori egiteko, nahitaez, paperean lehenengo pertsonan idatzia duena, hirugarren pertsonan adierazi beharko du.

PERPAUSA

04:52

PROPOSAMENA

Perpauza atala osatzen duten orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

Hori eginda atalaren bukaeran proposatzen den ariketa egin.

IZENA

07:53

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu eta atalaren bukaeran, koadrotxoan, proposatzen diren ariketak klasean egin.

Hori eginda atalaren bukaeran proposatzen den ariketa egin..

IZENORDAINA

11:16

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu.

ADISKIDE ONEKIN ORDUAK LABUR

13:18

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Istorioaren laburpena idatzi bost lerrotan.

-Idatzitako laburpena gelakideei irakurri ozenki.

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO 1. GELTOKIA

AURKEZPENAK

Aurkezleak bere burua aurkezten du.

Patxi Agaetru naiz. Eibarren jaioa. Eibartarra, beraz.
Berrogei eta bost urte dauzkat eta Gasteizen bizi naiz.

Aurkezleak Agurtzane aurkezten du.

Agurtzane Bizkaian jaio zen. Bizkaitarra da, beraz.
Kirola egitea gustatzen zaio; batez ere, igeri egitea.

Mikelek bere burua aurkezten du.

Nire izena Mikel da, eta deitura Iburubar.
Bizkaiko Lemoan jaioa naiz. Lemoarra naiz, beraz.
Hogeita hiru urte dauzkat. Orain Gasteizen bizi naiz.
Literatura, historia eta gizarte-gaiak gustatzen zaizkit.

Oihane bere burua aurkezten du.

Oihane Zikunsa naiz.
Araian jaio nintzen, mila bederatziehun eta hiruogeita hemeretzigarren urtean.
Beraz, Araiakoa naiz.
Gaur egun, Araian bertan bizi naiz, aitarekin eta amarekin.
Natur zientziak eta gorputz-hezkuntza gustatzen zaizkit.

Nereak bere burua aurkezten du.

Nerea da nire izena eta Bazite nire abizena.
Aramaion jaio nintzen mila bederatziehun eta laurogeita batgarren urtean.
Aramaioarra naiz, beraz.
Aramaion bertan bizi naiz, bakarrik. Fisika eta matematikak gustatzen zaizkit.

PERPAUSA

1. **Jonek auto bat erosi du. Nerea neska ederra da.**

2. **Perpauk guztiek, agerian edo isilpean, aditz bat daukate.**

3. **Jonek auto bat erosi du. Nerea neska ederra da.**

4. **Aditz hori da, hain zuzen ere, perpausaren ardatza edo osagai nagusia.**

5. **Halaber, perpauk gehienetan, lehen begiradan, bi multzo bereiz daitezke:**

6. **izen-sintagma eta aditz-sintagma.**

7. **Jonek auto bat erosi du. Nerea neska ederra da.**

8. **Gizon handi hura berandu etorri da.**

9. **Aldi berean, izen-sintagmaren barruan nahiz aditz-sintagmaren barruan hainbat osagai biltzen dira.**

10. **Osagai horiek, betetzen duten funtzio gramatikalaren arabera, sei multzotan bil daitezke**

11. **Izenak:** Nerea, Jon, etxe, mendi, ordenagailu, bolaluma, bulego...

12. **Izenordainak:** Ni, neu, zuek, norbait, haiek, zu, gu, inor...

13. **Adjektiboak:** handi, polit, txiki, gazte, Koldoren, etxeko...

14. **Determinatzaileak:** Hau, hori, bat, batzuk, asko, gutxi, hura...

15. **Adberbioak:** Gaur, ondo, zabalik, nonbait, gora, oinez, bihar...

16. **Aditzak:** naiz, nago, dator, joan, daki, bota, apurtu, doa...

17. **Lehenengo lau multzokoek:**
18. **izenek, izenordainek, adjektiboek eta determinatzaileek**
19. **izen-sintagma osatu ohi dute.**

20. **Bosgarren eta seigarren multzokoak:**
21. **adberbioak eta aditzak**
22. **aditz-sintagmaren osagaiak dira.**

IZENA

Nerea, zakur, ume, etxe, haize, mendi, esne, Italia.

Horiek denak izenak dira.

Hala ere, euren artean hainbat kategoria bereiz daitezke.

Batzuk izen arruntak dira.

IZEN ARRUNTAK

Nerea, zakur, ume, etxe, haize, mendi, esne, Italia.

Zakur, ume, etxe, haize, mendi eta esne izen arruntak dira, multzoa adierazten dute eta, normalean, determinatzailea hartzen dute.

Zakurrak jan du.

Ume bat etorri da.

Esne asko galdu da.

Izen arrunt zenbakarriak

Izen arrunt batzuk zenbatu egin daitezke kopurua adierazteko.

Bost zakur dauzka. **Lau** etxe botako dute.

Hiru mendi igo ditut **hiru** ordutan.

Eta, semantikaren ikuspegitik, bizidunak edo bizigabeak izan daitezke.

Izen arrunt zenbakarri bizidunak

Zakurrarengana noa.

Izen arrunt zenbakarri bizigabeak

Etxera noa

Izen arrunt zenbakaitzak

Beste izen arrunt batzuk ezin daitezke zenbatu.

Ur, esne, ke, haize, hotz, maitasun, edertasun, isiltasun.

Hala ere, ez pentsa zenbakaitzak direlako ezin direla neurtu, ez, izen zenbakaitz batzuk neurgarriak dira eta kantitatea adierazten dute.

Izen arrunt zenbakaitz neurgarriak

Ur asko edan dut

Hiru litro esne daukagu.

Beste batzuk, ordea, ezin dira neurtu ohiko moduan.
Izen neurgaitzek adjektiboen bidez intentsitatea adierazten dute.

Izen arrunt zenbakaitz neurgaitzak

Hotz handia egiten du.

Haize gogorra dabil.

Beste alde batetik, izen bereziak dauzkagu. Izen bereziek, normalean, ez dute determinatzailearik hartzen.

IZEN BEREZIAK

Mikel, Nerea, ~~zakur, ume, etxe, haize, mendi, esne, Italia, Alemania.~~

*Mikel, Nerea, Italia eta Alemania, esate baterako, izen bereziak dira.
Denontzat jakinak eta zehatzak diren gauzak adierazten dituzte.*

Izen bereziak, arruntak bezala, bizidunak nahiz bizigabeak izan daitezke.

Izen berezi bizidunak

Mikelengandik nator. Nerearengana noa.

Izen berezi bizigabeak

Alemaniatik nator.

Italiara noa.

Mikel, Nerea, Alemania eta Italia izen bereziak dira,
baina Nerea eta Mikel bizidunak eta Alemania eta Italia ez.

Horregatik, nondik zatoz eta nora zoaz
galderei bizidunek *Mikelengandik* eta *Nerearengana* erantzuten diete eta
Alemaniatik eta *Italiara* bizigabeek.

Zerrendako izenen ezaugarriak idatzi, ereduari jarraikiz.

Nerea *Izen berezia, biziduna, emakumezkoarena.*

Gona

Italia.

Zarata

Leiho

Mendi

Zakur

Aita

IZENORDAINA

Izenordaina. Izenaren ordezkoa.

Izena ordezkatzeko erabili ohi dugun izen-mota berezia da.

Izenordainak izenaren funtzioa betetzen du.

**NI, ZU, ZUEK, NORBAIT, NORBAITZUK,
ELKAR, GEU, ZEU, NOR, EDONOR.**

Izenordainak izenaren funtzioa betetzen du, bai;
baina, baditu zenbait berezitasun.

Esaterako, izenordainak ezin du ez mugatzailerik ez adjektiborik hartu.

Mutil eder batek ekarri du.

Ni *adj. mug.-k* ekarri dut.

Izenordainak era askotakoak izan daitezke.

Batzuk pertsona-izenordainak dira.

Pertsona jakin batzuei egiten diete erreferentzia
eta indartuak edo arruntak izan daitezke.

Pertsona-izenordain indartuak

NEU HEU BERA GEU ZEU ZEUEK EURAK

Pertsona-izenordain arruntak

NI HI GU ZU ZUEK

Euskaraz ez dago pertsona-izenordain arruntik hirugarren pertsonarako.

Euskaraz, hirugarren pertsonarako erakusleak erabiltzen dira.

NI HI Hau, Hori, Hura **GU ZU ZUEK** Hauek, Horiek, Haiek

ADISKIDE ONEKIN ORDUAK LABUR

Oihane parkean dago banku batean eserita. Mikel eta Nerea agertzen dira Kirol-poltsak dituztela. Oihaneri txantxetan ustekabetxo bat eman ondoren, bertan esertzen dira.

OIHANE Baina, baina, erotu egin al zarete? Mikel, asto hutsa zara!

MIKEL Niri ez begiratu. Nerearen ideia izan da.

NEREA Nire ideia? Zeuk egin duzu dena. Nik ez dut ezer egin.

MIKEL Konforme, asto hutsa naiz.

OIHANE Horrela gustatzen zait. Autokritika egitea aberasgarria da.

NEREA Gu kiroldegira goaz. Bostak dira. Ordubete barru, seieta, taldekoekin geratu gara. **Zuk** zer egin behar duzu?

OIHANE Ordubete barru? Bueltatxo bat eman dezakegu. Zer iruditzen zaizue? Kiroldegira lagunduko zaituztet.

MIKEL Primeran! Ideia ona iruditzen zait. **Elkarrekin** joango gara.

Hiru lagunak bankua utzi eta oinez abiatzen dira.

OIHANE Mikel, txandal hori berria da.

MIKEL Bai, berria da.

OIHANE Amatzok erosi al dizu?

MIKEL Ez, **nik neuk** erosi dut.

OIHANE Zuk? **Zuk zeuk?** Ezin dut sinetsi.

MIKEL Ba, sinetsi beharko duzu, entzun.

Hiru lagunak beste bide batean.

MIKEL Gaur goizean izan da. Sartu naiz dendan, eta, han zegoen Bea.

OIHANE Bea? Ez dut ezagutzen Bearik.

NEREA Bai, nik ezagutzen dut. Gelakoa da. **Zeuk** ere ezagutzen duzu, *Oihane.*

- OIHANE** Bea? Gelakoa? Ez dakit bada, horrela esanda.
- MIKEL** Bai, neska. Urrutitik ikusteko moduko soineko koloretsuak janzen dituena.
- OIHANE** Urtasun! Bai, bai, bai. Urtasun, Bea esaten al diozue?
- MIKEL** Beatriz da bere izena.
- OIHANE** Izango da baina **nik**, beti, Urtasun deitu izan diot.
- NEREA** Beno, denok dakigu Beatriz Urtasun zein den. Jarraitu Mikel.
- MIKEL** Ahaztu zait. Non nengoen?

Hiru lagunek, oinez, aurrera egiten dute

- NEREA** Dendan sartu zara eta, zast! Bea Urtasun ikusi duzu.
- MIKEL** A! Bai! Zast! Bea Urtasun jantziak saltzen.
- OIHANE** Bea denda batean saltzaile?
- MIKEL** Bai, Bea bera dendan saltzaile.

Hiru lagunak beste bide batean.

- MIKEL** Begiratzen diot. **Berak** begiratzen dit. **Niregana** hurbiltzen da eta esaten dit: -Zu Mikel zara, ezta? Orduan, nik zera esaten diot: - Bai, fakultatean gela berean gabiltza. Orduan berak esaten dit...
- NEREA** Mamia, Mikel, mamia. Ez ibifi adarretatik...

Hiru lagunak beste bide batean.

- OIHANE** Eta hori al da dena? Hainbeste misterio hori kontatzeko?
- NEREA** Bai, oraintxe esan duzu Oihane, hainbeste misterio eta hainbeste hitz ezer ez kontatzeko. (erlojua begiratzen du)
- Arraioa! Seiak eta hamar; berandu goaz; taldekoak zain dauzkagu.
- Hauek gibelak **geureak**, Mikel. Goazen.

Mikelek eta Nereak alde egiten dute; Oihane bertan gelditzen da bakarrik.

BERRIKUSTE AZKARRA

Zeuk egin duzu dena.
Izenordaina galdegaia bada forma indartua erabili.

Gu kiroldegira goaz.
Izenordaina galdegaia ez bada forma arrunta erabili.

Niri ez begiratu.
Ezezko perpausetan forma arrunta erabili.

Zuk zer egin behar duzu?
Zati-galderetan forma arrunta erabili.

Zeuk ere ezagutzen duzu, Oihane.
Ere partikularekin forma indartua erabili.

Ez, **nik neuk** erosi dut.
Nik neuk, zuk zeuk, ni neu, gu geu, eta horrelakoetan,
forma arruntari lotuta forma indartua erabili.

Zu gurekin joango zara

+

Gu zurekin joango gara

Elkarrekin joango gara

IZENORDAIN ZEHAZTUGABEAK

Izenordainak zehaztugabeak ere izan daitezke. Izenordain zehaztugabeek ez diete pertsona jakinei erreferentzia egiten; eta, euren artean, bi azpimultzo bereiz daitezke: NOR/NORTZUK eta ZER/ZERTZUK galdetzaileak alde batetik, eta galdetzaile horietatik eratorritakoak bestetik.

Galdetzaileak NOR-NORTZUK

ZER-ZERTZUK-ZEINTZUK

Eratorriak INOR

EZER

NORBAIT/NOR EDO NOR

ZERBAIT/ZER EDO ZER

EDONOR/NORNAHI

EDOZER/ZERNAHI

NORBERA/NOR BERE

IZENORDAIN BIHURKARIAK

Euskaraz perpaus bihurkariak adierazteko, hau da, perpausean ekintzaren egilea eta ekintzaren hartzailea pertsona bera denean izenordain indartuaren genitiboa gehi *burua* egitura erabiltzen da.

Izenordain indartuaren genitiboa + BURUA -(r)ekin, -ri, -z ...

Egitura hori deklinatu egin daiteke.

IZENORDAIN ELKARKARIAK (elkar)

Jokinek Itziar maite du eta Itziarrek Jokin maite du. Jokinek Itziar eta Itziarrek Jokin. Jokinek eta Itziarrek elkar maite dute.

Jokinek Itziar maite du. Itziarrek Jokin maite du.
Jokinek Itziar eta Itziarrek Jokin.
Jokinek eta Itziarrek **elkar** maite dute.

Elkar, izenordain elkarkariak deklinabide kasu-marka guztiak har ditzake, NORR izan ezik.

Jokinek eta Itziarrek **elkarri** begiratu diote.
Jokin eta Itziar **elkarren** lagunak dira.

IZENORDAIN ELKARKARIAK (bata bestea)

Jokin Itziarren ondoan eseri da. Itziar Jokinen ondoan eseri da. Jokin eta Itziar bata bestearen ondoan eseri dira. *Bata bestea* formak ere elkarrekikotasuna adierazten du, *elkar* formak bezala.

Jokin Itziarren ondoan eseri da. Itziar Jokinen ondoan eseri da.
Jokin eta Itziar **bata bestearen** ondoan eseri dira.

Bata bestea forma ere deklinatu egin daiteke.

Jokin eta Itziar **bata besteari** begira daude.
Jokinek eta Itziarrek **bata bestearentzat** dihardute.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com